

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

## **ALDEZLEAREN URTEKO TXOSTENA**

**2012ko abenduaren 15 - 2013ko abenduaren 14a**

**Itziar Etxebarria Bilbao**

aldezleā

## AURKIBIDEA

<b>Sarrera</b>	3
<b>1.- Bigarren urtea, aurrekoaren oso bestelakoa</b>	3
Kasu gehiago, baina ez hain korapilatsuak.	3
Taldearen funtzionamendu ona.	4
Elkarlana UPV/EHUko pertsonekin eta organoekin.	4
Oro har, urte lasaiagoa.	4
<b>2.- Urtean zehar aztertutako gaiak eta arazoak</b>	4
Aztergaien deskribapen orokorra.	5
Bulegora etorritako pertsona-kopurua eta aztergai-kopurua.	5
Hizkuntza.	5
Aztergaiak generoen arabera.	5
Aztergaiak kolektiboen arabera: ikasleak, II, AZP eta “Beste batzuk”.	6
Aztergaiak Campusen arabera.	7
Aztergaiak Ikastegi eta Zerbitzuen arabera.	8
Aztergai-motak.	10
Aztertutako gaiak.	11
Bulegoaren esku-hartzea.	13
Jasotako erantzuna.	14
Kasu aipagarriak.	15
<b>3.- Beste eginkizun batzuk</b>	16
Prestakuntza.	16
Aholku Batzordea eratzea eta bilerak.	17
Antzeko zereginak dituzten EAEko beste arduradunekin izandako harremanak.	17
Beste unibertsitate batzuetako defendatzaileekin eginiko bilerak.	18
Jazarpena prebenitzeko eta jazarpen-kexak konpontzeko hitzarmena berrikustea.	18
<b>4.- Txosten ekonomikoa</b>	19
<b>5.- Azken gogoetak</b>	20
<b>ERANSKINA: Aztergaien zerrenda</b>	21

## Sarrera

2013ko abenduaren 15ean, bi urte bete ziren Klaustroko kideek Aldezlea aukeratu eta zerbitzu hau martxan jarri zenetik.

Lehenengo urtea gogorra izan zen, oztopoz beterikoa, 2013ko otsailaren 27an Klaustroan aurkezturiko Txostenean ikus daitekeenez: hasierako azpiegitura-arazoez gainera, aspalditik bideratu gabe zeuden kasu korapilatsuei egin behar izan genien aurre hasieratik bertatik. Nolanahi ere, aipatutako Txostenak ere adierazten duenez, lehenengo urtearen amaierarako, lantaldea jada eratuta zegoen eta kasu berriagoak eta samurragoak iristen hasi ziren, eta Aldezlearen bulegoaren eguneroko martxa sendotzen lagundu zuen horrek.

Aurrekoarekin alderatuta, bigarren urte hau askoz lasaiagoa izan da, gure bulegora jo duen pertsona-kopurua eta aztergai-kopurua handiagoak izan badira ere. Hurrengo ataletan, lehenik, Aldezlearen zerbitzuak 2013an egin duen lanaren ezaugarri nagusiak laburbilduko ditugu. Bigarrenik, era sintetikoan aipatuko ditugu urtean zehar aztertutako kasuak, eta garrantzitsuenak nabarmenduko ditugu. Hirugarrenik, bulegoak izan dituen beste zeregin batzuei erreparatuko diegu. Laugarrenik, urteko txosten ekonomikoaren aipamen laburra egingo dugu. Azkenik, txostena amaitzeko, gogoeta labur batzuk egingo ditugu.

## 1.- Bigarren urtea: aurrekoaren oso bestelakoa

### Kasu gehiago, baina ez hain korapilatsuak

Aurreko urtearekin alderatuta, 2013an nabarmen egin du gora aztergaien kopuruak (aurrerago ikusiko den moduan, % 41,24ko gehikuntza).

Ondoko atalean datu zehatzak emango baditugu ere, *grosso modo* esan genezake urte honetan, aurrekoarekin alderatuta:

- 1) Gora egin du, nabarmen, zerbitzura etorri den ikasle-kopuruak, irakasleenak edo AZPko langileenak baino kasu errazagoekin, oro har.
- 2) Kontsulta-kopuruak ere gora egin du, kexa-kopuruaren aldean.
- 3) Gainera, behera egin dute ustezko jazarpen-kasuekin zerikusia duten kexek, bai kopuruan bai intentsitatean.

Ondorioz, oro har, bigarren urte honetan aztertutako kasuek konponbide errazagoa izan dute. Denborak esango digu gai errazagoak aztertu izana zoriari egotzi beharreko zerbait den ala aurrerantzean iritsiko zaizkigun aztergai-moten adierazle den.

## Taldearen funtzionamendu ona

2012. urtearen erdialdera, M<sup>a</sup> Teresa Estévez eta Ana Saralegi hasi ziren lanean bulegoan, teknikari abokatu eta idazkari-lanetan, hurrenez hurren. Bi-biek funtsezko lana egin dute hasieratik bertatik, aurreko Txostenean adierazten zen moduan.

Gaur egun, urte eta erdiko ibilbidearen ondoren, lantaldea guztiz kohesionatuta dago, eta denbora horretan hartutako abiadari eta metatutako esperientziari esker, trebatuago dago bere lana egiteko eta seguruago sentitzen da planteatzen dizkioten gai askotarikoei aurre egiteko.

## Elkarlana UPV/EHUko pertsonekin eta organoekin

Azken urte honetan, aurrekoan bezala, ezin hobea izan dugu unibertsitateko erakunde eta pertsonen laguntza; kasu batean soilik jokatu dute uzkurxeago hasieran gurekin.

Gainera, eguneroko lanean ikusi ahal izan dugunez, gure bulegoaren bidez kexaren bat jaso duten zerbitzuetako arduradunek arretatsu erantzun digute, oro har, eta kontuan hartu dituzte arazoak errepika ez daitezen egin zaizkien proposamenak. Begi-bistakoa da UPV/EHU jende askok gogotik lan egiten duela, eta gero eta hobeto egin nahi duela.

Bihoakie lantalde osoaren zorionik beroena Aldezlearen lana erraztu duten pertsona guztiei (ikastegi, zerbitzu, kargu eta erantzukizun-maila guztietakoak), beren adeitasun eta prestasunagatik.

## Oro har, urte lasaiagoa

Aipatutako faktoreei esker, Aldezlearen bulegoak askoz hobeto egin du lan 2013an, eta arreta egokia eskaini ahal izan die gai guztiei, arrazoizko denbora-epe batean erantzunez kasu bakoitzari.

Gaur egun, erritmo onean heltzen diegu aztergaiei, eta, une jakin batzuetan izan ezik, ez dugu "buxadurarik" izaten, funtsezkoa dena gurea bezalako zerbitzu batean.

## 2.- Urtean zehar aztertutako gaiak eta arazoak

Atal honetan, 2013an bulegoan aztertu ditugun aztergai eta kasuen oinarritzko ezaugarriak azalduko ditugu, eta, ondoren, bereziki garrantzitsuak iruditzen zaizkigun horietako batzuei erreparatuko diegu. Testuaren amaierako **ERANSKINAK** urtean zehar aztertutako kasu eta kontsulta guztien zerrenda biltzen du.

## Aztergaien deskribapen orokorra

### *Bulegora etorritako pertsona-kopurua eta aztergai-kopurua*

Aldezlearen zerbitzuak 137 kasu aztertu ditu 2013an. Aurreko urtean 97 izan ziren; horrenbestez, gehikuntza % 41,24koa izan da. Bestetik, elkarlanean jarraitu dugu Idazkaritza Nagusiarekin eta, bereziki, Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzarekin, aurrera egiten ahalegintzeko oraindik itxi ezin izan ditugun aurreko urteko kasu korapilatsu batzuetan.

Pertsona batzuek gai bat baino gehiago helarazi dizkigute, eta kasu jakin batzuk taldean planteatu dira. Hortaz, 2013an, 144 pertsonak jo dute Aldezlearen bulegora laguntza eske.

### *Hizkuntza*

Hizkuntzari dagokionez, 137 kasuetatik, 20 euskaraz iritsi zaizkigu, eta 117, gaztelaniaz. 1. eta 2. grafikoetan ikus daitekeenez, bi hizkuntzen erabilerak oso antzekoak izan dira 2013an eta 2012an: % 15 ingurukoa euskaraz eta % 85 ingurukoa gaztelaniaz.




### *Aztergaiak generoen arabera*


Bulegora etorri diren 144 pertsonetatik, 74 gizonezkoak izan dira eta 69, emakumezkoak (210 zenbakidun kontsulta anonimoa izan denez, ez dago jakiterik sexua). Hain zuzen, 3. eta 4. grafikoek datu hauek eta 2012koak ehunekoetan adierazten dituzte.

Grafikoetan ikus daitekeenez, 2012an Aldezlearengana jo zutenen artean gizonezkoak izan ziren nagusi, argi eta garbi: % 64 izan ziren, UPV/EHUn zuten ehunekoaren (% 47,1) oso gainetik. 2013an, aldiz, sexuen arteko proportzioa orekatuagoa izan da, eta hurbilago daude ehunekoak UPV/EHUko kideen sexuen araberako banaketatik.

**3. grafikoa - Aldezlearengana jo duten pertsonen banaketa generoaren arabera 2012**




**4. grafikoa - Aldezlearengana jo duten pertsonen banaketa generoaren arabera 2013**




***Aztergaiak kolektiboen arabera: ikasleak, II, AZP eta "Beste batzuk"***

Talde edo kolektiboen arabera, honela banatzen dira 2013ko aztergaiak (datu pertsonalak adieraziz planteatu diren 136 kasuak): ikasleak 62 kasu planteatu dituzte; irakasleak eta ikertzaileak, 50; eta administrazio eta zerbitzuetako langileak, 9 (ikus 5. eta 6. grafikoa). Gainera, beste 15 aztergai "Beste batzuk" kategorian sailkatu ditugu, eta ez dira grafikoetan adierazi; izan ere, unibertsitateko arazoei buruzkoa baziren ere (plazei buruzko gorabeherak, tituluak, ziurtagiriak...), kanpoko pertsonen planteatutakoak ziren.

**5. grafikoa - Irakasleak, ikasleak eta AZPkoek planteatutako gaiak 2012**



**6. grafikoa - Irakasleak, ikasleak eta AZPkoek planteatutako gaiak 2013**




5. eta 6. grafikoetan ikus daitekeenez, 2012an, AZPko langileen eta irakasleen ehunekoak (% 13,1 eta % 47,6, hurrenez hurren) gainditu egin zituzten nabarmen talde horiek UPV/EHUn zituzten portzentajeak (% 3,5 eta % 10,3, hurrenez hurren); ikasleak, aldiz, unibertsitateko kideen % 86,2 ziren. 2013an, bi talde horiek beren mailatik gora jarraitu dute, neurri apalagoan bada ere, baina nabarmen egin dute gora ikasleek planteatutako kasuek. Datuak aztertuta, zerbitzura datozen pertsonen profila normalizatzen hasi dela esan daiteke, eta inguruko beste unibertsitateetako defendatzaileengana jotzen dutenen profilarekin parekatzen.

Ikasleen taldeko 62 kasuetatik, 56 graduiko ikasleek izan dira eta 6, graduondokoak. Gauzak horrela, 7. eta 8. grafikoetan ikus daitekeenez, 2013an, graduondoko ikasleek ehunekoak nabarmen egin du behera aurreko urtekoarekin alderatuta.



#### *Aztergaiak Campusen arabera*

Datu pertsonalak adieraziz planteatu diren 136 kasuen artetik, 69 Bizkaiko Campusetik iritsi dira; 32, Gipuzkoako Campusetik; eta 20, Arabako Campusetik (esan bezala, 15 aztergai UPV/EHUtik kanpoko pertsonak planteatu dituzte). Ikus 9. eta 10. grafikoak.



9. grafikoa ikus daitekeenez, campusen araberako kasuen banaketari dagokionez, 2012an Bizkaiko Campusak zegozkiona baino aztergai gehiago planteatu zituen, Araba eta Gipuzkoaren aldean; izan ere, UPV/EHUren % 56,1 izan arren, eskarien % 65,5 campus horretatik iritsi ziren. Aldiz, 2013an campus arteko proportzioa bat dator ia guztiz UPV/EHU dituzten ehunekoekin.

#### ***Aztergaiak Ikastegien eta Zerbitzuen arabera***

Ondoko taulan, Aldezlearen bulegora laguntza eske jo duten pertsonen Ikastegi eta Zerbitzuen zerrenda jaso dugu.




**1. taula. 2012 eta 2013an Aldezlearengana jo duten pertsonen Ikastegiak eta Zerbitzuak**

Ikastegiak eta Zerbitzuak	2012		2013	
	Aztergaiak	Pertsonak	Aztergaiak	Pertsonak
Arkitektura GET	4	4	6	8
Arte Ederren F.	1	1	5	8
Bilboko Enpresa Ikasketen U.E.	3	3	3	3
Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko U.E.	3	3	7	7
Bilboko Ingeniaritza GET	7	7	4	4
Bilboko Irakasleen U.E.	5	5	3	3
Campuseko Gerenteordetza	-	-	2	2
Donostiako Enpresa Ikasketen U.E.	1	1	1	1
Donostiako Eskola Politeknikoa	1	1	2	2
Donostiako Irakasleen U.E.	1	1	4	5
Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko U.E.	1	1	2	2
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.	1	1	15	15
Errektoregoa	1	1	-	-
Farmazia F.	2	2	4	4
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien F.	-	-	3	3
Gasteizko Enpresa Ikasketen U.E.	-	-	5	2
Gasteizko Erizaintza U.E.	-	-	1	2
Gasteizko Ingeniaritzako U.E.	2	1	4	2
Gipuzkoako Biblioteka	-	-	1	1
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	6	8	8	7
Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetza	-	-	1	1
Idazkaritza Nagusia	-	-	1	1
Ikasleen Kontseilua	2	1	3	3
IKTen Gerenteordetza	3	3	-	-
Informatika F.	-	-	2	2
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F.	3	3	1	1
Lan Harremanen U.E.	1	1	4	4
Letren F.	2	2	6	5
Master eta Doktorego Eskola	-	-	1	1
Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko U.E.	4	4	1	1
Medikuntza eta Odontologia F.	13	12	6	6
Nautika eta Itsasontzi-makineria GET	1	1	1	1
Psikologia F.	5	6	4	8
Zientzia eta Teknologia F.	3	3	6	6
Zuzenbide F.	6	5	7	6
Beste batzuk	15	5	15	17
Anonimoa	-	-	1	1
<b>Guztira</b>	<b>97</b>	<b>86</b>	<b>140*</b>	<b>145**</b>

\* Hiru aztergai ikastegi edo zerbitzu bat baino gehiagoko pertsonak planteatu dituzte. Beraz, zutabe honen guztizkoa 140 da, 137 izan ordez. \*\* Guztizkoa 145 da, eta ez 144, pertsona batek eskari bat egin duelako "Beste batzuk" kategorian eta beste eskari bat II talde gisa.


### Aztergai-motak

Eskaera-motei dagokienez, 2013an, 66 kontsulta, 65 kexa eta 5 bitartekaritza-eskari jaso dira (aurreko urtean: 13 kontsulta, 72 kexa eta 5 bitartekaritza-eskari). Izan ere, horiexek dira unibertsitate-defendatzaileengana iritsi ohi diren hiru aztergai-mota nagusiak eta guri ere aztertzea dagozkigunak, 2013ko otsailaren 27ko Klaustroak onartu zuen Aldezlearen Araudiaren arabera. Gainera, oraindik indarrean dagoenez *Jazarpena prebenitzeko eta jazarpen-kexak konpontzeko hitzarmena*, nahiz eta berraztertze-prozesuan egon, jazarpen-kasuez ere arduratu behar izan dugu 2013an. Dena dela, horrek ez digu iaz adinako ahaleginik eskatu, ustezko jazarpen-kasu bati lotutako kexa bakarra iritsi baitzaigu; hala ere, inoiz ez da gutxi, era honetako arazoez mintzo garenean (zehazki, bi kexa iritsi zaizkigu, baina argi eta garbi ikusi dugu bigarrena beste mota bateko kexa zela).



Goiko 11. eta 12. grafikoak alderatuz gero, alde handiak sumatzen dira 2012 eta 2013ko datuen artean. Hain zuzen, 2013an gora egin dute nabarmen kontsulten kopuruak eta ehunekoak; aldiz, asko apaldu da kexen proportzioa, eta zehazkiago, jazarpen-kexena.

Ondoko 13. grafikoak bi urteetako aztergai-motei buruzko datuak biltzen ditu, kolektiboen arabera. Ikus daitekeenez, gora egin dute ikasleen, irakasleen eta "Beste batzuk" ataleko kideen kontsulten kopuruek.



### Aztertutako gaiak

Unibertsitateko kideek zer arazo planteatzen dizkiguten zehatz jakiteko, kolektibo bakoitzari dagozkion gaiak bildu ditugu lau taulatan. Talde bakoitzean nagusi diren gaiak lauki itzalezatuak eta zenbaki lodiak erabilia nabarmendu ditugu.

### 2. taula. Ikasleen aztergaiak

Gaia	Aztergai-kop.	Pertsona-kop.
Araudia aplikatzeko modua	6	6
Arazo pertsonalak	1	1
Atzeritarrak	1	1
Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea	5	5
Bekak	2	2
Erantzunik eza	3	3
Gradura egokitzea	2	2
Ikaskideen portaera	1	1
<b>Ikasleen ebaluazioa</b>	<b>10</b>	<b>13</b>
Ikasleen ordezkariak	2	2
Informazioa eta matrikula	4	7
Intimitaterako eskubidea	1	1
Irakaskuntza-kudeaketa	3	3
Irakasleen portaera	4	5
Iraunkortasunari buruzko Araudia	1	2
Jendearen arreta	3	3
Kanpoko Praktiak	2	2
Konpentsazio bidezko ebaluazioa	4	4
Matrikula ezeztatzea	2	2
Prezio publikoak	2	2
Tituluak eta ziurtagiriak	1	1
Zerbitzuen portaera	2	2
<b>Guztira</b>	<b>62</b>	<b>70</b>

2. taulan ikus daitekeenez, ikasleen artean kexa eta kontsulta gehien eragin dituzten gaiak honako hauek dira: ebaluazioa (azterketak, notak...), araudia aplikatzeko modua (aplikazio desegokia edo zorrotzegia) eta baliozkotzeak eta kredituen aitortpena.

### 3. taula. Irakasleen eta ikertzaileen aztergaiak

Gaia	Aztergai-kop.	Pertsona-kop.
Aparteko ordainsaria	1	4
Araudia aplikatzeko modua	4	4
<b>Azaroak lankideekin</b>	<b>17</b>	<b>15</b>
Azpiegiturak	1	1
Bateragarritasunak	1	1
Erantzunik eza	3	3
GAUR aplikazioaren diseinua	1	1
Ikasleen ebaluazioa	1	1
Ikasleen portaera	3	3
Ikerketa-proiektuak	1	1
Irakaskuntza-banaketa	3	3
Irakasleen portaera	3	2
JAP	2	1
Jazarpena	1	1
Osagarri gehigarriak	2	3
<b>Plazak</b>	<b>5</b>	<b>5</b>
Prestakuntzan dagoen ikertzailearen ordainsariak	1	1
<b>Guztira</b>	<b>50</b>	<b>50</b>

Irakasle eta ikertzaileen kasuan (3. taula), arazo nagusia pertsonen arteko gorabeherak dira (edo sail bereko taldeen artekoak). Datu hauek, 2012ko Txostenean aipatzen ziren antzeko datuekin batera, argi adierazten dute zer arazo sortzen dizkien sail batzuetako dinamika irakasle askori. Lanean hasi ginenetik bereziki landu dugun gai bat da, aurrerantzean ere arretaz aztertuko duguna, sail horien funtzionamendua hobetzeko helburuarekin.

Bigarrenik, aipatzekoa da irakasle-plazekin zerikusia duen aztergai-kopuru handia (merituen ebaluazioa lehiaketetan, deialdirik eza kontratu-amaieran dauden irakasle laguntzaileentzat...).

AZPko langileei dagokienez, 4. taulan ikus daitekeenez, aztergai-kopurua txikiagoa da, eta ez dago bereziki nagusitzen den gairik.

#### 4. taula. AZPkoen aztergaiak

Gaia	Aztergai-kop.	Pertsona-kop.
Araudia ez betetzea	1	1
Azaroak lankideekin	1	1
AZPkoen diskriminazioa irakasleei dagokienez	1	1
Boto elektronikoa	1	2
Erantzunik eza	1	1
Errektoregoaren portaera	1	1
Erretiroa	1	1
Mugikortasuna	1	2
Plazak	1	1
<b>Guztira</b>	<b>9</b>	<b>11</b>

Azkenik, “Beste batzuk” kategoriari dagokionez (UPV/EHUtik kanpoko pertsonak), 5. taulan ikus daitekeenez, plazen gaia da nagusi (merituen ebaluazioak eragindako arazoak, gehien bat), irakasleen kasuan bezala.

#### 5. taula. “Beste batzuk” kategoriaren aztergaiak

Gaia	Aztergai-kop.	Pertsona-kop.
Atzerritarrak	1	1
Bekak	1	1
Erantzunik eza	1	1
Erretiroa	1	1
Ikasketak egiteko aukera	3	3
Kontratazioa	1	1
Plazak	<b>6</b>	<b>6</b>
Tituluak eta ziurtagiriak	1	1
<b>Guztira</b>	<b>15</b>	<b>15</b>

#### *Bulegoaren esku-hartzea*

Bulegoan egin diren kontsulta guztiek (66) behar bezalako erantzuna izan dute.

Aldezleak esku hartzea eskatu duten 71 kasuetatik (kexak, bitartekaritza eta jazarpena), 30 atzera bota dira, hainbat arrazoiengatik, dagokion azterketa egin ondoren: 17, prozedura arrunta ez amaitzeagatik (kasu ez-larriak); 5, funtsik ez izateagatik; 3, eskaera zehatza ez egiteagatik; 1, ebazpen judizialaren zain egoteagatik; 2, Arartekoaren ebazpena jada edukitzeagatik; eta 2, Aldezleak gaian eskumenik ez izateagatik. Ondorioz, 41 eskari onartu dira izapidetzeko.

Onartutako 41 eskarietatik, 3 bitartekaritza-eskariak izan dira; 1, ustezko jazarpen-kasu bati loturiko kexa; eta gainerakoak (37), hainbat gairi buruzko kexak. Jazarpen-kexa baietsi egin da. Beste 37 kexei dagokienez, 9 ezetsi egin dira, xehetasunez aztertu ondoren arrazoi gabekotzat hartu direlako, eta 2 artxibatu egin dira (bat judizializazioagatik eta bestea akats-zuzenketagatik); beraz, 26 baietsi dira.

Horrenbestez, Aldezlearen bulegoak 3 bitartekaritza-prozesu eta 27 kexa (jazarpen-kasubat, horien artean) bideratu ditu.

Baietsitako kexek (hau da, izapidera onartu direnak eta lantaldearen ustez funtsik bazutenak) hainbat talde eta organori eragiten zieten. 6. taulan kexen jomuga izan diren kolektibo eta organoen zerrenda ikus daiteke.

**6. taula. Onartutako eta baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak**

<b>Kolektiboak eta organoak</b>	<b>Aztergai-kop.</b>	<b>Pertsona-kop.</b>
Arkitektura GETeko Zuzendaritza	1	2
Bilboko Ingeniaritza GETeko Idazkaritza	1	1
Errektoregoa	3	4
Farmazia fakultateko Dekanotza	1	1
Gerentzia	1	2
Gizarte eta Komunikazio Zientzien arloko Dekanotza	1	1
Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetza	3	3
Idazkaritza Nagusia	1	1
Ikasleak	1	1
Ikerketaren arloko Errektoreordetza	1	1
Irakasle eta ikertzaileak	5	4
Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordetza	3	4
Langileen Gerenteordetza	1	1
Master eta Doktorego Eskola	1	1
Medikuntza eta Odontologia Fakultateko Dekanotza	1	1
Psikologia Fakultateko Idazkaritza	1	1
Zientzia eta Teknologia Fakultateko Idazkaritza	1	1
<b>Guztira</b>	<b>27</b>	<b>30</b>

***Jasotako erantzuna***

Gaurko dataz, 2013ko espediente guztiak itxita daude. Gure bulegora iritsi diren kexak ebazteko jo dugun pertsonen eta organoen erantzunari dagokionez, oro har, oso ona izan dela esan daiteke: 27 kexetatik 22tan (eta, neurri batean, beste 2tan ere), pertsonak edo organoek egoki eta zentzuz hartu dituzte bulegoak egin dizkien planteamenduak eta aholkuak (ikus 7. taula).

**7. taula. Kexari erantzun behar izan dion pertsona edo organoaren erantzuna**

<b>Erantzuna</b>	<b>Aztergai-kop.</b>	<b>Pertsona-kop.</b>
Baiezkoa	22	23
Baiezkoa, neurri batean	2	3
Ezezkoa	3	4
<b>Guztira</b>	<b>27</b>	<b>30</b>

Aldezlearen proposamena eta dagokion organoaren erantzuna bat etorri ez diren hiru kasuetan, araudia zorrotz eta hertsiki interpretatzeagatik izan dela uste dugu; hori kezkatzen gaituen gai bat da. Bi urtez lanean aritu ondoren, uste dugu joera handia dagoela, arazoren bat sortuz gero, araudiaren aplikazio hutsera jotzeko. Are gehiago, uste dugu ezen kasu batzuetan hartzen diren erabakiak, sen onaren eta justizia-senaren aurkakoak ez ezik, arauaren beraren espirituaren aurkakoak ere badirela.

### Kasu aipagarriak

2013an aztertu ditugun kasuen artean, hiru hauek nabarmendu daitezke:

- 1) Hiru pertsonak Aldezleari eginiko eskaera, baldintzak bete arren ordainsari osagarriak eskura ezin ditzaketan irakasleen alde egiteko. Izan ere, 2010ean egin zen azken deialditik ez da beste deialdirik izan, eta egoera horrek galera ekonomiko handiak dakarzkie soldata murrizta duten irakasleei kasu batzuetan.
- 2) Pertsona batek hainbaten izenean Aldezleari eginiko kontsulta, Irakasle Laguntzaile kontratua amaitu zaienei eskainiko zaien alternatibari buruz. Pertsona horiek Irakasle Agregatu (edo Titular) plaza lortzeko deialdian parte hartu beharko lukete, baina ezin dute, dagokion maila egiaztatua izan arren, orain bertan ez dagoelako plaza horietarako deialdirik.
- 3) Hainbat pertsonak eginiko kontsulta Eusko Jaurlaritzak doktorego aurreko beketan egin dituen murrizketei buruz.

Hiru kasu horiek argi adierazten dute zer-nolako egoera prekarioan eta ezegonkorrean dauden gure unibertsitateko irakasle eta ikertzaile gazteak. Egoera zinez kezagarria da, eta inguruko unibertsitateetan antzeko egoeran daudela jakiteak ez digu ardura arintzen. Beste horrenbeste esan genezake prestakuntza-bidean dauden eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren (egungo Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa) beka duten UPV/EHUko ikertzaileen soldata-diskriminazioak eragingako kehari buruz. Gure bulegoak 2012an dagokion Erabakia jakitera eman bazuen ere, auzia oraindik ez da konpondu, eta 2013an Arartekoak gurearen antzeko ebazpena argitaratu du.

Irakasle gazteen prekarietatea aipatu badugu ere, zehatzagoak izate aldera, kezka ikusi beharko genuke ezegonkortasun hori denboran luzatzen ari dela pixkanaka, eta gaur egun irakasle helduago batzuk ere antzeko egoeran daudela. Kasu askotan, 40 urte inguruko pertsonen mintzo gara, 15 urtetik gorako esperientzia dutenak irakaskuntzan eta ikerketarloan. Gure unibertsitatean, prestakuntza handiko irakasle asko ditugu, gazteak eta ez horren gazteak, etorkizuna zalantza betetik ikusten dutenak beren lan-ibilbidean hautaketa-prozesu bat baino gehiago gaitu arren, edo, plaza bat eskuratuta ere, baldintza ekonomiko prekario eta txarrekin jarraitzen dutenak. Azken urte honetan, irakasle horien kexa nabarmena izan da. Beren ezinegona adierazi digute, horrenbeste zalantza, ziurtasun falta eta oztoporengatik.

Zuzendaritza Kontseiluak irakasle hauekin kezkatuta dagoela adierazi du. Hona hemen errektore jaunak abenduaren 12ko Klaustroan esandako hitzak:

“Gurean bi unibertsitate egoteak kezkatzen gaitu. Horietako batean, adin jakin batera iritsi garen pertsonok gaude, lanbide- eta soldata-egoera egonkor batekin dagozkion oposizio eta deialdiak gainditu ondoren. Bestean, aldiz, gure erakundearen etorkizuna izanagatik, araudia medio lan-ibilbidean aurrera egin ezin duten irakasle gazteak daude, soldata hobek emango lizkieketen osagarri-deialdietara heltzeko modurik gabe. Pertsona gazteak dira, engaiatuak, bokazioa dutenak, hirueledunak horietako asko, ikertzaile onak, gure unibertsitatearen egitekoak betetzen dutenak.

Gobernu-talde garen aldetik, konprometitu gaude irakasle gazteen akademia-ibilbidearen garapenarekin, eta pertsona horien egoera hobetzeko proposamenak helaraziko dizkiegu instituzioei”.

Hala eta guztiz ere, ez dirudi arazo hauek epe laburrean konponduko direnik. Egia esan, irtenbidea ez dago errektorego-taldearen esku soilik; Espainiako Gobernuaren jarraibide politikoaren eta Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-neurrien menpe dago, batez ere. Baina badago Errektorego Taldeak egin dezakeen zerbait: bi gobernuari plan eraginkor eta premiazko bat aurkeztea –beste unibertsitate publikoetako errektoreekin batera, Espainiako Gobernuaren kasuan–, egungo *impasse* egoeratik ahalik eta lasterren irteteko. Horrek ez du esan nahi orain arte ezer egin ez denik. Eginahalean jarraitu behar dela esan nahi du, eta, ahal bada, eginahal hori azkartu. Ez ditugu alferrik galtzen utzi behar azken urteotan guztiok egin dugun ahaleginari esker gure unibertsitatearentzat zabaldu diren garapen-aukerak.

### 3.- Beste eginkizun batzuk

Aurreko urtean bezala, 2013an ere Aldezlearen zerbitzuaren helburu nagusia izan da ahalik eta hobekien erantzutea heldu zaizkion eskari guztiei. Nolanahi den, beste zeregin batzuetan ere aritu gara.

#### Prestakuntza

Gure zerbitzura iristen diren gai askok prestakuntza berezia eskatzen digu. Hori dela eta, gure kezketako bat etengabeko prestakuntza da, Aldezlearena nahiz lantaldearena, gure lanean garrantzi berezia duten gai zehatzetan.

Alde horretatik, estatuko unibertsitateetako defendatzaileekin eginiko bilerez gain (geroago aipatuko ditugu), aipatzekoak dira beste jarduera hauek:



- 1) ***Protocols and procedures for managing conflicts of workplace bullying and other situations related*** izeneko Uda Ikastaroan parte hartzea. Antolatzaileak: UPV/EHU, Jazarpen Moralaren Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketarako Saila eta EAeko Abokatuen Kontseilua. Zuzendaria: Xabier Irastorza (Europako Laneko Segurtasun eta Osasun Agentzia). Datak eta lekua: ekainaren 27 eta 28, Donostia.
- 2) ***Gatazken Ebazpena*** izeneko ikastaroa antolatzea, Aldezlearen lantaldearentzat eta Aholku Batzordeko kideentzat. Arrisku psikosozialez arduratzen diren sindikatuetako kideak ere gonbidatuak izan ziren parte hartzera. Cristina Merino izan zen irakaslea, Psikologia Fakultateko kidea, eta ekainaren 10 eta 22an eta irailaren 17an egin zen, Donostian.

Bestetik, liburutegi txiki bat osatzen hasi gara, unibertsitateko arazoekin zerikusia duten gai hauei eta beste batzuei buruzko aleekin.

### **Aholku Batzordea eratzea eta bilerak**

2012ko martxoaren 1eko Klaustroan aurkeztu zen Jardun Planak agindu bezala, urte horretan Aholku Batzordea eratu zen, 9 kideekin, hain zuzen: Campus bakoitzeko ikasleen, irakasleen eta AZPkoen ordezkari bana. 2013an, pertsona horietako batek bere ardura utzi eta beste batek ordezkatu du.

Urriaren amaieran, Maite Zelaia irakaslea egungo errektorego-taldearen hautagaitzan sartu eta batzordea utzi zuen. Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako irakasle den M<sup>a</sup> Ángeles de la Cabak hartu du bere gain haren egitekoa.

Aholku Batzordeak bi bilera egin ditu 2013an, martxoan eta azaroan, zerbitzuaren funtzionamendua eta arazo nagusiak aztertzeko. Eta 2014aren hasieran berriro bildu da, Txosten hau berrikusi eta eztabaidatzeko.

### **Antzeko zereginak dituzten EAeko beste arduradunekin izandako harremanak**

Rosa Miren Pagola Deustuko Unibertsitateko Aldezle izendatu zutela jakin bezain pronto, harremanetan jarri ginen harekin, eta elkarlanean aritzeko prestasun osoa adierazi genion. Bi Aldezleek Espainiako Unibertsitate Defendatzaileen Konferentzian (CEDU) batera parte hartu izanak harremanak are gehiago estutzeko balio izan du, eta bide berriak urratzeko etorkizuneko lankidetzan.

Bestetik, gure Araudiaren 9.3.f artikulua ezarritakoari jarraiki, Iñigo Lamarca Arartekoarekin ere jarri gara harremanetan, pertsonalki ezagutzeko, gure unibertsitatearekin zerikusia duten gai komun batzuk aztertzeko eta gure esku dauden kontu guztietan elkarlanean aritzeko prestasuna adierazteko.

## Beste unibertsitate batzuetako defendatzaileekin eginiko bilerak

Hasieratik bertatik, gure bulegoak harremanak izan ditu beste unibertsitate batzuetako defendatzaileekin; 9T taldekoekin, bereziki.

Zehazki, 2013an, Aldezlea lau bileratan izan da, unibertsitate-defendatzaileek ebatzi behar dituzten ohiko arazoei buruz eztabaidatzeko:

- 1) 9T taldeko defendatzaileen bilera, 2013ko otsailaren 7an, Madrilen.
- 2) CEDUren bilera (Espainiako Unibertsitate Defendatzaileen Konferentzia), 2013ko maiatzaren 10ean, Madrilen.
- 3) 9T taldeko defendatzaileen bilera, 2013ko irailaren 12 eta 13an, Logroñon.

Bilera honetan, Aldezleak testu bat landu eta eztabaida bat koordinatu zuen: "Neurriz kanpoko suspentso-kopurua eta beste emaitza anomalo batzuk irakasgai batean".

- 4) CEDUren bilera, 2013ko azaroaren 6, 7 eta 8an, Sevillan.

## Jazarpena prebenitzeko eta jazarpen-kexak konpontzeko hitzarmena berrikustea

Azkenik, Aldezlearentzat garrantzi handia duen prozesu bat aipatu behar dugu, zeharka soilik parte hartzen badugu ere, eragina agerikoa izango baita gure bulegoak ebatzi beharreko arazo-moten izaeran. Hain zuzen, gaur egungo *Jazarpena prebenitzeko eta jazarpen-kexak konpontzeko hitzarmenaren* berrikuspenaz ari gara. Hitzarmen horren arabera, Aldezleari dagokio, ohikoak dituen gaiez gain, jazarpen-kexak aztertu eta ebatzea.

Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordearen 2012ko urriaren 17ko bileran, indarrean dagoen hitzarmenari buruzko hiru txosten aurkeztu ziren: txosten bat Aldezleak egin zuen, Amaia Masedak (Gizarte Erantzukizuneko eta Unibertsitate Hedakuntzako errektoreordea) eskatuta; bigarrena OSALANek idatzi zuen, errektoreorde berak eskatuta; hirugarrena UPV/EHUko zerbitzu juridikoak egin zuen. Aldezlearen eta zerbitzu juridikoaren txostenak bat zetozen honako hau adieraztean: gaur egungo hitzarmenak Aldezleari jazarpen-kexen izapidetzean ematen dion ardurak arazoak sortzen ditu. Bi txostenek jasotako ondorioen arabera, Aldezleak jazarpena izan den ala ez erabaki behar izatea ez dator bat Estatutuek gure erakundeari aitortzen dioten egitekoarekin, eta hitzarmen horri buruzko gogoeta sakona egiteko beharra planteatzen zuten.

*Aldezlearen Erakundearen Funtzionamenduari buruzko Araudiaren* onespenez, 2013ko otsailaren 27ko Klaustroan, testua berrikusteko beharra ere planteatzen digu, araudi horrek kontsulta, kexa eta bitartekaritza-eskarietara mugatzen duelako erakundearen zeregina, eta kanpoan uzten dituelako jazarpen-kasuei loturiko kexak.

Hori horrela, Aldezleak hitzarmena berrikusteko beharra behin eta berriro aipatu ondoren, Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordearen maiatzaren 8ko bileran, epe bat irekitzea erabaki zen, testua aldatzeko proposamenak aurkezteko, eta beste bilera bat egitea, ekainaren 27an edo 28an, proposamenei buruz eztabaidatzeko. Nolanahi ere, azkenean ez zen

bilerarik egin, egun horietan jazarpen-protokoloei buruzko Uda Ikastaroa –jada aipatua– egiten ari zelako eta interesgarritzat jo zelako batzordeko kideek ikastaro horretan parte hartzea.

Irailean, hitzarmena berrikusteko lanak ez aurrera ez atzera zeudela ikusita, gaiari buruzko bere kezka adierazi zion Aldezleak gure unibertsitateko Kudeatzaileari. Egoera honek zerbitzura heltzen ziren jazarpen-kexak aztertzen jarraitzea eskatzen zuen, UPV/EHUko talde juridikoak berak desegokitzat bazuen ere eta erakundearen Araudiak, Klaustroak onartua, kasu horiek Aldezlearen eskumenetik kanpo uzten baditu ere.

Azkenik, Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordearen 2013ko abenduaren 4ko bileran, *Laneko jazarpen-salaketak ebazteko hitzarmenaren* zirriborroa (talde juridikoak idatzitako dokumentua) aldatzeko proposamenak eztabaidatzen hasi ziren. Gaur egun, zuzenketei buruzko eztabaidak jarraitzen du.

#### 4.- Txosten ekonomikoa

2012ko aurrekontua 30.000 eurokoa izan zen; 2013koa, aldiz, 15.000 eurokoa, % 50eko murrizketa egin ondoren.

Ondoko taulak gastuak eta kontuen egoera (2013ko abenduaren 30ean, ekitaldi ekonomikoa ixteko data) adierazten ditu.

#### 8. taula. 2013ko aurrekontua

2013ko hasierako aurrekontua	15.000,00 €
<b>Gastuak</b>	
Bulegoko materiala, fotokopiak eta koadernaketak	3.073,55 €
Liburuak	299,05 €
CEDUko bazkide-kuota (Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentzia)	225,00 €
Ikastaroak	2.686,04 €
Bidaiak eta dietak	3.116,40 €
Bestelako gastuak	132,13 €
<b>Guztira</b>	<b>9.532,17 €</b>
<b>Saldoa</b>	<b>5.467,83 €</b>

## 5.- Azken gogoetak

Aldezlearen lanak berekin dakartza ezinbestean arazoak eta trantze estuetatik pasatu beharra, batzuetan poz handiak ere izaten badira ere. Lehenik, gure esku-hartze edo bitartekaritzari esker (errazagoa batzuetan eta korapilatsuagoa eta konprometituagoa beste batzuetan), bideratu eta konpondu egin daitezkeelako UPV/EHUren funtzionamendurako garrantzi “txikikoak” diruditen arazoak, baina hain txiki izan ez daitezkeenak, bereziki arazo horiek planteatzen dituztenentzat. Bigarrenik, gure lanaren bidez, nolabaiteko eragina izan dezakegulako unibertsitatearen administrazio eta funtzionamenduaren eta kultura instituzionalaren alderdi jakin batzuetan.

Alderdi horietako batzuk –Sailen egunerokoari loturikoak, bereziki– dinamika konplexu eta inertzia instituzional batzuen ondorio dira, neurri handi batean, eta, UPV/EHU ez ezik, inguruko beste unibertsitate batzuetan ere antzeman daitezke. Beste batzuk –hala nola azken urteetako burokrasia-hazkunde esponenziala–, aldiz, garai hauen adierazletzat har daitezke, eta estatuko unibertsitate gehienetan antzeman ditzakegu. Nolanahi ere, ezin dugu etsi egoera hori “naturalizat” hartzen.

Estatutuetako 75. eta 76. artikuluek ezarritakoaren arabera, Aldezlearen eginkizuna da unibertsitatearen arlo guztietan kalitatea hobetzeko egoki iruditzen zaizkion aholkuak ematea. Alde horretatik, dinamika eta inertzia horietako asko zalantzan jar ditzakegu eta jarri *behar* ditugu, eta aldaketa txikiak eragin, epe ertainera begira, beste era bateko funtzionamendua erdiesteko: arlo eta maila guztietan (ikasgelan, zerbitzuetan, organoetan, sailetan...), ez hain individualista eta solidarioagoa izango den funtzionamendua, erabakiak hartzean gizatiar eta arduratsuago jokatu duena, zentzuan eta justizia-senean oinarritua arauaren aplikazio hutsean baino gehiago, gogoeta bultzatu eta karga burokratiko txikiagoa izango duena, aurre egingo diona abusua erabiltzen duenari eta laguntza eskainiko diona salaketa egiten duenari..., eztabaidara eta kritikara irekitako funtzionamendua, artatsuagoa eta adeitsuagoa... Horixe da Aldezle honen ahalegin funtsezkoa, bere betebeharretik harago, hau da, bulegora jotzen duen pertsonari entzutea eta urratutzat dituen eskubideak berrezartzea, eta, oroz gain, haren itzaropenei ez hutsik egitea.

Egiteko horrek, dena dela, unibertsitateko kide guztien eginahala eskatzen du. Guztiok egin diezaiokegu gure ekarpena giza- eta instituzio-kalitate handiagoko funtzionamendu hori lortzeko egin beharreko aldaketari: nork bere ikasgelatik, sailetik, zerbitzutik, erantzukizun-kargutik..., bidegabekeria salatuz, abusuari aurre eginez, begirunerik gabeko tratua arbuiatuz, jokamolde desegokiak aurpegiratuz..., laguntza eskainiz jokamolde horiek nozitzen dituenari, bat eginez salatzen dituenarekin, gogoeta eta kritika defendatuz, komunikazioa eta elkarrizketa bultzatuz...

Txosten hau amaitzeko, dei egin nahi diet gure unibertsitateko kide guztiei elkar hartuta aurrera egitera, gero eta bidezkoagoa eta adeitsuagoa izango den unibertsitatea eraikitzeko, unibertsitate bikaina akademia nahiz giza ikuspegitik.

## ERANSKINA: Aztergaien zerrenda

Gakoak			
Taldea	Aztergai-mota		
IK: Ikasleak	KE: Kexa		
II: Irakasleak eta ikertzaileak	KO: Kontsulta		
AZP: Administrazio eta zerbitzuetako langileak	B: Bitartekaritza		
Beste batzuk: UPV/EHUtik kanpoko pertsonak	J: Jazarpena		
AN: Anonimoa			
zk.	Taldea	Aztergai-mota	Gaia
98	IK	KE	Desadostasuna irakasgai batzuk baliozkotzeko eginiko eskaria ezestearekin.
99	IK	KO	UPV/EHUko ikasle kamerundar bat Espainiatik kanporatzea.
100	II	KE	Kontratu-amaiera abenduan zuten ikertzaileak Eguberrietako aparteko ordainsaririk gabe gelditzea.
101	IK	KE	Prezio publikoen exentziarik eza (genero-indarkeriagatik, EAEn errolatuta ez egoteagatik).
102	AZP	KE	Arazoak boto elektronikoarekin.
103	IK	KE	Erantzunik ez jasotzea irakasgai batzuk baliozkotzeari buruzko gorako errekurtsio batean, irakasgai horien azterketen bezperan.
104	II	KE	Arazoak Bigarren Hezkuntzako eta Unibertsitateko irakasle izateko bateragarritasuna lortzeko.
105	IK	KE	Ikasleari azterketa errepikatzeko eskatzea, irakasleak azterketa galdu ondoren.
106	IK	KE	Noten zerrenda izenekin argitaratzea, argitalpen-epea igarota.
107	AZP	KE	Epeak ez betetzea Gobernu Kontseilurako dokumentuen argitalpenean.
108	IK	KE	Azterketa-ordua aldatzeko eskaera ez onartzea, kirol-talde profesionalarekin entrenamendua izanagatik.
109	II	KO	Zigor-neurriak bideo bat nahigabe apurtzeagatik.
110	II	KO	Doktore izan gabe Saileko zuzendari izateko aukera.
111	II	KO	Irakaslearekiko mendekotasun handia duen ikaslea.

112	II	B	Gatazka Sailean.
113	II	KO	Kopuru bat modu txarrean erreklamatzeko elementu bat galdu duen ikasle bati (nahiz eta ez duen gaizki erabili), jadanik ordainduko duela adierazi duenean.
114	IK	KO	Arazoak matrikula epea amaitu eta hiru egunera ordaintzeagatik.
115	IK	KO	Arazoak irakasgai bateko irakasleekin.
116	II	KO	Arazoak Sailean.
117	Beste batzuk	KE	Kontratu batean parte hartzea ukatzeko arrazoiak ez argitzea.
118	II	KE	Jazarpen-akusazioa bidegabea erabiltzea.
119	IK	KE	Irakasgai batzuk ez baliozkotzea eta horren arrazoiak ez argitzea.
120	IK	KE	Azterketa-data hobeak Deuston.
121	Beste batzuk	KE	Aldez aurreko erretirorako pizgarriak kentzea.
122	II	KO	Saileko kontuak xehetasunez aurkeztu ez dituen zuzendaria.
123	II	KO	Irakasle batzuen errespeturik eza Saileko zuzendariari.
124	IK	B	Arazoak praktikak lan egiten duen zentroan egiteko.
125	II	KO	Artikulu bat argitaratzea eta parte hartu duen pertsona baten izenik ez jartzea.
126	II	KO	Tratu desegokia Saileko lankide batengandik.
127	Beste batzuk	KO	Susmoa plaza jakin baterako deialdirik ez dela egingo.
128	IK	KO	Arazoak doktorego-programaz aldatzeko, tesia euskaraz egin ahal izateko.
129	IK	KO	Notak ez argitaratzea hilabeteko epean.
130	Beste batzuk	KE	Irakasle Elkartu plaza baterako ebaluazioa oso baremo baxuekin.
131	AZP	KE	Diskriminazioa ordutegi-kontrollean, irakasleekin konparatuz.
132	II	KO	Aukeraturtako plazan irakatsi ezin izatea, beste lau plaza baztertu ondoren.
133	IK	KO	Beka bigarren titulazioan.
134	II	KO	Arazoak ikastegi bateko azpiegituretan.

135	II	B	Arazoak Saileko lankide batekin.
136	IK	KE	Euskarazko kredituak eskatzea soilik gaztelaniaz egin zitekeen gradu batean.
137	IK	KO	Ebaluazioa amaierako proba bakar batean egin ahal izateko kasu bereziak.
138	IK	KE	Desadostasuna irakasle batek praktika-ariketa batean jarritako notarekin.
139	IK	KO	Graduko ikasketak egiteko beka ukatzea.
140	IK	KE	Azterketa-ebaluazioa irakaskuntzarik gabeko irakasgaiari.
141	II	KE	Alderdi arazotsuak araudi akademikoan.
142	IK	KO	Arazoak ikasleen ordezkartzean.
143	IK	KE	UPV/EHUK bertan behera uztea kanpoko praktikak egiteko Santander beka.
144	II	KE	JAP eskariak ebazteko irizpideak ez argitaratzea.
145	II	KE	Erantzunik ez jasotzea gorako errekurso batean.
146	II	J	Ustezko jazarpena lankideengandik.
147	II	KE	GAUR aplikazioak kreditu-faltarik ez aurreikustea bajengatik; arazoak sortzen ditu horrek.
148	AZP	KO	Jokabide ez-onargarriak plaza baten amortizazio-prozesuan.
149	II	KO	Merituen ebaluazio ez-zuzena plaza baten lehiaketan.
150	IK	KO	AZPko langile batek fakturarik ez ematea eta modu txarrez aritzea.
151	Beste batzuk	KO	Irregularitasun ugari plaza baterako hautagaien aukeraketan.
152	IK	KE	Erantzunik ez jasotzea plaza baten ebaluazioari jarritako errekurso batean.
153	II	KO	Arazoak bi katedradunekin.
154	IK	KE	Desadostasuna Konpentsazio Epaimahaiaren erantzunarekin.
155	II	KO	Plaza baterako deialdia baldintzak betetzen ez dituzenean, aurretik esan denean ezin dela justifikatu baldintzak betetzen diren plaza bat.
156	II	KO	Arazoak Saileko kide gehienekin.
157	IK	KE	LH ikasketak Graduko ikasketetara baliozkotzea.

158	II	KE	Irakasle ez-egonkorrek UPV/EHUko ikerketa-proiektuetan parte hartzeko ezintasuna.
159	IK	KO	Ikasle batzuen jazarpen sexista neska ikaskide batzuei.
160	II	KO	Gatazka Sailean.
161	AZP	KE	Erantzunik ez jasotzea errekurtsio batean.
162	II	KO	Arazoak lankideekin, jokamolde larriagatik.
163	IK	KE	NANA erabili behar izatea unibertsitate-txartelaren ordezkidazkaritzan izapideak egiteko.
164	II	KE	Presioa irakasle guztiei oro har eta bereziki kexa-jartzaileari.
165	II	B	Errektoregoak erreklamazio batzuei ez erantzutea.
166	IK	KO	Suspentsoa <i>Practicum</i> -ean, egun bateko falta justifikatuagatik.
167	IK	KE	Tituluaren europar gehigarria kobratzea.
168	II	KE	JAPn INV 2 meritu guztiak kontuan ez hartzea, araudiak muga espliziturik ezartzen ez duenean.
169	Beste batzuk	KO	Irakasgaiak baliozkotzea "paperik gabeko" immigratzaile bati.
170	Beste batzuk	KE	Erantzunik ez jasotzea eskatzaileari eginiko kritikei buruzko informazio-eskarian.
171	II	KO	Arazoak Sailean.
172	IK	KO	Irakasle batek <i>bullying</i> egitea ikasle bati.
173	II	KO	Kontratuan soldata ez zehaztea.
174	II	KO	Ikasle bati azterketa berriro egiteko eskatzeko aukera, irakasleak azterketa galdu duela onartu eta gero.
175	IK	KE	Desadostasuna irakasgai baten ez baliozkotzearekin.
176	IK	KO	Deialdi guztiak agortu ondoren, gradura igarotzea iradokitzea.
177	Beste batzuk	KE	Irakasle Elkartuen plazen esleipenari jarritako errekurtsioaren erantzuna atzeratzea.
178	II	KE	Erantzunik ez jasotzea irakasgai baten azterketarekin dituen arazoetan.
179	IK	KE	Erantzunik ez jasotzea selektibitateko nota aldatzeari jarritako premiazko errekurtsioan; bidea ixten dio egin nahi dituen ikasketetara.
180	AZP	KE	Zerbitzuari dagokion luzapen-eskaria ezestea.



181	IK	KO	Doktoregoko matrikula onartzea urte batetik bestera.
182	II	KE	Diskriminazioa irakasleen ordainsari osagarriak kobratzean.
183	AZP	KE	Tratu desegokia pairatzea eta horri buruzko dokumentuak eskatzea.
184	II	KE	Gizarte Segurantzari ez kotizatzea soldata jaso duen epe batean.
185	IK	KO	Gradura nahitaez igarotzea, lizentziatura iraungitzean eta irakasgai batzuekin gelditzean.
186	Beste batzuk	KO	UPV/EHUn sartzeko arazoak.
187-188	IK	KO	Arazoak automatrikula egitean, nota guztiak ez sartzegatik.
189	IK	B	Bitartekaritza-eskaria Konpentsazio Epaimahaiaren aurrean.
190	Beste batzuk	KE	Plaza baterako merituen ebaluazioa.
191	IK	KO	Errekurtsoa Konpentsazio Epaimahaiaren ebazpen bati.
192	IK	KE	Ikastegiaren idazkaritzako telefonoak ez erantzutea.
193	IK	KE	Idazkaritzako telefonoak ez erantzutea ikasleen oinarrizko beharrekiko zerkusia duten gaitan.
194	II	KE	Irakasleen ordainsari osagarriak eskatzeko ezintasuna.
195	II	KO	Hainbat kontsulta prestakuntzan dagoen ikertzailearen (Ministerioaren doktorego-aurreko laguntzen onuraduna) soldata-diskriminazioari lotuta Aldezleak emandako gomendioari buruz.
196	IK	KO	Master aktetan <i>ez-aurkeztu</i> gisa agertzea.
197	IK	KO	Lizentziaturako ziurtagiria kredituen zehaztapenarekin lortzeko aukera.
198	II	KE	Irakaskuntza-ordutegia aldatzeko emandako arrazoiak kontuan ez hartzea.
199	IK	KE	Errekurtso bat ez onartzea, ustez epea itxita egoteagatik.
200	IK	KO	Deialdi gehigarriak ez onartzea iraungitze-prozesuan dagoen irakasgaietan.
201	IK	KE	Selektibitate-buletina ez agertzea matrikularako behar den materialari buruzko webguneko oharretan.
202	II	KO	Ikasle batek ikasgelatik kanpo irakasle batekin gaizki jokatzeko duenean egin beharrekoa.

203	IK	KO	Idazkaritzak informaziorik ez ematea antzinako planeko hautazkoak gainditu beharrari buruz.
204	IK	KO	Ikasteko gelak asteburuetan ixtea.
205	Beste batzuk	KE	Gutxieneko ikasle-kopuru faltagatik masterrik egingo ez dela azken orduan jakinaraztea.
206	IK	KE	Iraileko azterketa igaro denean, oraindik erantzunik ez izatea ekaineko notari buruzko erreklamazio batean.
207	II	KE	Tratu desagokia lankide batengandik.
208	Beste batzuk	KE	Nota okerragoa zuten beste eskatzaile batzuei lekualdatzea onartzea.
209	Beste batzuk	KE	Laguntza-falta Masterra egiteko.
210	AN	KO	Irakaskuntza-gidarik ez egotea webgunean.
211	IK	KE	Graduz aldatzean, kontuan ez hartzea aurreko ikasturte partekatuan lortutako matrikulak.
212	II	KO	Irakasle Laguntzaile plaza baterako puntuazioari errekurtsioa jartzeko prozedura.
213	IK	KE	Ikasle baten argazki pertsonalak fakultateko ordenagailuan agertzea haren baimenik gabe.
214	AZP	KE	Inori kalte egiten ez dion trukatzeko adostu bat ez onartzea.
215	IK	KE	Master amaierako lana ezin aurkeztea, gutxieneko eskola-orduak huts egiteagatik.
216	II	KE	Jarrera oldarkorra lankide batengandik.
217	IK	KO	Hautazko irakasgaiak derrigorrezko irakasgai bihurtzea.
218	II	KO	Ikasle batek modu txarrean erantzutea.
219	IK	KE	Txanda arratsaldetik goizera aldatzeko eskaria ez onartzea.
220	AZP	KO	Harreman-arazoak zerbitzuan.
221	II	KO	Arazoak Saileko irakaskuntza-banaketan.
222	IK	KE	Lehen mailako irakasgai guztiak ez baliozkotzea.
223	IK	KE	Finkatutako talde batetik bereizia izateko erabakia ez argitzea.
224	IK	KO	Irakasgai baten konpentsazioa ez onartzea, baldintza bat ez betetzeagatik.
225	Beste batzuk	KO	Kontratu batean, poltsetara ez jotzea.

226	IK	KO	Ikasleen elkarte bat inskribatzeko txosten bat egitea beharrezkoa den argitzea.
227	IK	KO	Arazoak zerbitzu bateko arduradunarekin.
228	II	KO	<i>Bullying</i> -arekin gero eta antz handiagoa duen tratu desegokia Saileko pertsona batengandik.
229	II	KE	Irakaskuntza antolatzeko arazoak Sail batean.
230	II	KO	Irtenbidea titular edo agregatu gisa akreditaturik dauden eta laguntzaile-kontratua amaitzear duten pertsonentzat.
231	IK	KE	Deialdi batean ezin parte hartzea, Karrera Amaierako Proiektuen epaimahaien luzapenagatik.
232	IK	KO	Ordaindutako prezio publikoak itzultzea, ikasketak ezohiko arrazoiengatik utzi behar izateagatik.
233	IK	KO	Ikaslea modu txarrean tratatzen duen irakaslea.
234	IK	KO	Motibazio-arazo berriak graduz aldatzean.

---